



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 29a

57 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoa suntsitzeko arauak ematen dituena. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena (4. or.).

—Foru Lege proposamena, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzekoa. Akats zuzenketa (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua pre-miatzen du Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan zenbait jarduera egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Gipuzkoako foru diputazioei exijitzen zaie N-121 errepideko Bera-Behobia bideuneri konponbidea emateko lankidetz hitzarmen bat egin dezaten. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakaritzak hartutako erabakia, Itoizko urtegiko larrialdien planari buruz informatzeko ez agertzekoa, arbuiatzen da. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak bazter utzia (9. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Urederra ibaian dauden arrain haztegiei irekitako espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, administrazio publikoek nekazaritza eta abeltzaintzaren arloetan dituzten laborategiak arautzen dituzten Europako Batasuneko araei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiategien egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, soinuzko irrati hedapenerako emisoreen adjudikazioak jasotako enpresen akzio jabetzan gertatu diren aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Lizarrako saihesbidea bikoizteko aukera eta kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Hezkuntza eta Kultura Batzardeak Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzarde Nagusian izanen dituen bi ordezkariak izendatzea (16. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen**

### *LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001ko abenduaren 26ko 129. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 1 eta 2 zenbakiko “in voce” zuzenketa, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Artikuluei, azken xedapenei, zioen azalpenari, tituluari eta izenburuei Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkezturiko boto partikularrak.

“In voce” zuzenketa hauexek dira:

– 1. “in voce” zuzenketa.

1. artikulua ordeztuko zuzenketa. Hona testua:

1. Entzefalopatia esponjiforme kutsagarriarako arriskuko material espezifikoa, Nafarroan ekoizten dena, Lurraldearen arabera eskuduna den administrazio publikoak baimendutako eraldaketa industria bati eskuratu beharko diote beren edukitzaile edo jabeek, ondoren suntsitzeko.

2. Nafarroan dauden abeltegietan hildako behiak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak baimendutako eraldaketa-industria bati eskuratu beharko dizkiote beren edukitzaile edo jabeek, ondoren suntsitzeko. Nafarroan errausketa metodoak, errausketa osoa nahiz osagarria izan, erabiltzeko modua dagoenean, Foru Lege

honetako 4. artikuluan aipaturiko instalazioetara eraman beharko dira.

– 2. “in voce” zuzenketa.

2.1 artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Hona testua:

“1. Zuzeneko errausketa sistemarik ez dagoen eta arriskuko material espezifikoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak baimendutako eraldaketa industria bati eman badiote, arriskuko material espezifikoa hiri hondakin solidoen araztegiak hurbilenerako zabartegian lurperatuz deseginen da edo bestela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baimenduriko eraldaketa industriaren kokaguneagatik dagokion zabartegian.”

Zioak: Aurreko “in voce” zuzenketarekin bat.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Irizpena** **TITULUA (kenduta)**

#### ZIOEN AZALPENEA (KENDUTA)

**1. artikulua.** (KENDUTA)

**2. artikulua.** (KENDUTA)

**3. artikulua.** (KENDUTA)

**4. artikulua.** (KENDUTA)

**5. artikulua.** (KENDUTA)

#### **Azken xedapenak (KENDUTA)**

**Lehena.** (KENDUTA)

**Bigarrena.** (KENDUTA)

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa**

*LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamena dela eta onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2002ko otsailaren 7ko 9. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, xedapen gehigarri berriaren testua berreskuratzeko Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko boto partikularra defendatzen ahalko da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Irizpena**  
**Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen bidez arautzen dira Nafarroako Foru Komunitatean lurraldearen antolamendu eta hirigintzako gaiak; horien artean daude lurzoruaren merkaturan esku hartzeari buruzko administrazio jarduerak. Hirigintzako eskumenak, foru legean ezarritakoarekin bat, aukera ematen dio kasuko administrazio eskudunari ekimen pribatuaren parte hartzea

eskatzeko, baldin eta horrela hirigintzaren xede eta helburuak hobeto betetzen badira.

Nafarroako Foru Komunitatean, lurzoruaren merkatuaren egoera ikusita, eta babes publikoko erregimeneko etxebizitzaren eskaintza hain urria izanik, komenigarria dirudi Nafarroako Gobernuari eta udalei aukera ematea etxebizitzak sustatzen dituzten erakunde sindikalei lurzoruak besterentzeko; horrela, babes publikoko erregimeneko etxebizitzaren eskaintza handitu egiten litzateke eta Nafarroako gizarteak arlo horretan dituen beharrak arindu.

Horregatik justifikatua dago beste xedapen gehigarri bat ezartzeak Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legean; helburua da Nafarroako Gobernuari eta udalei aukera ematea zenbait ondasun zuzenean besterentzeko erakunde sindikalei babes publikoko etxebizitzak eraiki ahal izan ditzaten.

Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 273. artikuluko a) letrako 3. idatz-zatia aldatzea. Honek geldituko da:

“Zuzenean babes publikoko araubideren bateko etxebizitzak sustatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei –laguntza arlokoak, sozialak edo sindikalak–, baldin eta frogatzen badute delako sustapen horren bideragarritasuna bermatzeko esperientzia eta bitartekoak badituztela. Halakoe-tan, behar diren neurriak hartuko dira babes publikoko etxebizitzak hartzen dituztenek horretarako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.”

**Azken xedapena**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa**

### *LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko irailaren 24ko 93. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Irizpena**

## **Foru Lege proposamena, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa**

### ZIOEN AZALPENA

2000. urtean, Nafarroako Foru Komunitatean, basa animaliek eragindako istripuak hamalau izan ziren, eta urte horretan berean gidariek hainbat "topaketa" izan zituzten basa animaliekin. Zorionez, halere, ez da hildakorik izan orain arte, baina eragindako kalte ekonomikoa geroz eta handiagoa da. 1999. urtean kalte-ordainen inguruko hiru rogeita bat espediente tramitatu ziren Ingurumen Departamentuan, bai partikularrenak bai ehiza barrutienak. Horiei beste zazpi gehitu behar zaizkie, kalteak milioi erdi bat pezetatik gorakoak izaki Ondare Departamentura igorri baitziren.

Azken urteotan ehiza larriko espezieek eragindako istripuen kopurua handitzen joan da eta behar lukeena baino askoz handiagoa da egun. Toki askotan, bizilagunak ez egotea eta harrapariak desagertu izana nahiko arrazoi badira beste espezieen ugalketa eta haiek eragindako kalteak ulertzeko.

Baina egia da, bestalde, trafikoa duten errepedetan istripuen arriskua ahal den txikiena izateko, ehiza espezieen dentsitateak galzorian jartzearaino jaitsi beharko lirakekeela. Horrez gain, egungo legeek eskatzen dute administrazio esku-

dunak onetsitako plan bati jarraikiz egin behar dela ehiza, hau da, ehiza barrutiek ehizatu ahal dutena ehizatzen dute.

Foru Komunitateko egungo legeek ehiztarien eta barrutien erantzuleen gain uzten dute ehiza faunak nekazaritzan nola zirkulazioko istripuen ondorioz eragindako kalteen erantzukizuna.

Nafarroan, istripu horien erantzule kasuko ehiza barrutiaren kudeaketa esleitu duena da, hau da, gehienbat herrietako ehiztari elkarteak, betiere istripua barruti barrenean gertatu bada eta istripua sortu duen espeziea kasuko ehiza antolatzekeo planean aprobetxamendurako araututa badago. Hori da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak taxaturiko egoera.

Nafarroako Ehizaren plan estrategikoak, gaian zerikusia zutenen lankidetzaz eta partaidetzarekin egindakoak eta Nafarroako Parlamentuak 1997an onetsitakoak, ekintza eta neurrien artean ezartzen zuen beharrezkoa zela 2/93 Foru Legea aldatzea, foru administrazioaren gain uzteko basa espezie guztiek, ehizakoek barne, egindako kalteak, ehiza espezieek nekazaritzan eragindako kalteak salbu.

Istripu horien erantzule kasuko ehiza barrutien kudeaketa esleitu duena da, hau da, gehienbat herrietako ehiztari elkarteak, betiere istripua barruti barrenean gertatu bada eta istripua sortu duen espeziea kasuko ehiza antolatzekeo planean aprobetxamendurako araututa badago.

Hala ere, aseguru poliza orokorrak ez ditu hartzen egun gertatzen diren istripu gehienak, duen frankizia altuagoa izaten baita ehizarako animaliek ibilgailuetan eskuarki sortzen dituzten kalteak baino. Eta kalteok hartzen dituenetan ere, frankiziapeko parte kentzen zaio kalte-ordainari. Horren ondorioz, ehiza barrutietako arduradunek ez dagokien kostua hartu behar dute beren gain, jakin gabe horri nola aurre egin.

Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak ezartzen duenez, ehiza lizentziak 5 urtekoak izanen dira. Bost urteko lizentzien aplikazioak sektorearen kexak eragin zituen eta horren haritik, apirilaren 11ko 77/1994 Dekretuak lizentziaren zenbatekoa epe bakar batean edo bost urteotan ordaintzeko aukera ezarri zuen. Aukera horrek,

ordea, arazo handiak sortzen ditu kudeaketa administratiboan, ordaindu gabeko urtekoak kobratzeko eta pagamenduen kontrolerako, eta arazoak ekar ditzake etorkizunean orain egiten den eta ehiztarientzat hain eroso den posta bidezko pagamendu sisteman. Halaber, traba da lizentzia eskuratzeko tramiteak arintzearen beste autonomia erkidegoekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetzeko.

**1. artikulua.** Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 57 artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“Foru lege honetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak, ehiza barrutiez den bezainbatean, jabeari edo finkez eta haien aprobetxamenduz baliatu eta gozatzea dakarten beste eskubide erreal edo pertsonalen titularrei dagokie, lege zibiletan xedatutakoarekin bat. Hala ere, Nafarroako Gobernuak, erantzulearen eta kaltetuaren adostasunez, zuzenean ordainduko dizkio kaltetuari basa ugaztun eta hegaztiekin eragindako errepide istripuen ondoriozko kalteordainak.

**2. artikulua.** (KENDUTA)

**3. artikulua.** Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 31. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“Ehizarako edo arrantzarako erabili daitekeen basa faunak eragindako kalteen ordainak lege zibilen arabera erantzule gertatzen direnek ordainduko dituzte. Hala ere, Nafarroako Gobernuak, erantzulearen eta kaltetuaren adostasunez, zuzenean ordainduko dizkio kaltetuari basa ugaztun eta hegaztiekin eragindako errepide istripuen ondoriozko kalteordainak.”

**4. artikulua.** Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 59 artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“Lizentziak Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Departamentuak emanen ditu; Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan izanen dute balioa, urtebeterako nahiz bost urtetarako, aukeran, eta epe horietarako ere berritu ahal izanen dira”.

**5. artikulua.** Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 54 artikuluko 5. idatz-zatia aldatu da. Hona testua:

“Ehiza antolatzeke planek erreserbak ezarriko dituzte eremu jakin batzuen balio ekologikoan oinarrituta edo espezieen babes eta garapenari laguntzearen. Erreserba horietan ez da ehizan, arrantzan edo animalientzat gogaikarri izan daitekeen beste edozein jardueratan aritzerik izanen, lur horien nekazaritza, abeltzaintza edo oihangintzako erabilerari dagokiona ez bada. Ehiza antolatzeke planak mugatuko ditu espezie zehatz baten zako erreserbak edo/eta babestokiak lurrak eta azalera zein diren, baimendutako barrutiaren azalera osoan zuzenean oinarriturik.

**6. artikulua.** Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 72 artikuluko a) letra aldatu da. Hona testua:

“a) Ehiza babesteko behar adinako zaintza ematea barrutiari, ehiza antolatzeke planari jarraikiz. Horretarako, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Departamentuak ezarriko du zaindarien gutxieneko kopurua eta haien dedikazioa”.

#### **Xedapen gehigarria**

1.- Bide azpiegitura berrietan, beharrezko neurriak hartuko dira basa faunak pasabide bereziak izan ditzan.

2.- Basa faunaren eraginez, egungo azpiegiturako zenbait gunek istripu tasa handiagoa badute, beharrezkoak diren prebentzio neurriak eta seinaleak jarriko dira.

#### **Xedapen gehigarri berria**

Nafarroako Gobernuak laguntza ekonomikoak ezarriko ditu ehiza barrutien titularrek ehiza-zainak kontrata ditzaten.

#### **Xedapen indargabetzailea**

Indarrak gabe gelditu dira foru lege honen kontra doazen maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

#### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzekoa**

### **AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenean akats bat antzeman da. Lege hori 2002ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Izan ere, hona zuzenketa:

1 eta 3. orrialdeetan agertzen den titulua ez da zuzena. Beraz, "Foru Lege proposamena, Nafa-

arroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzekoa" tituluaren ordean, zera esan behar du: "Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzekoa".

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan zenbait jarduera egin dezan**

*HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2002ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan zenbait jarduera egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan zenbait jarduera egin dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentua premiatzen du zenbait irakaslek eta guraso elkarrek dituzten desadostasunek eta kezkek sortutako egoera bidera dezan, ikasleentzat erreferente pedagogiko izanen den bizikidetasun ona ekarriko duten konponbide egokiak erdiestearren.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Gipuzkoako foru diputazioei exijitzen zaie N-121 errepideko Bera-Behobia bideuneari konponbidea emateko lankidetzat hitzarmen bat egin dezaten**

*HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Gipuzkoako foru diputazioei exijitzen zaie N-121 errepideko Bera-Behobia bideuneari konponbidea emateko lankidetzat hitzarmen bat egin dezaten".

Biltzarreko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 2002ko maiatzaren 24an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



**Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakartzak hartutako erabakia, Itoizko urtegiko larrialdien planari buruz informatzeko ez agertzekoa, arbuiatzen da**

*HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakartzak hartutako erabakia, Itoizko urtegiko larrialdien planari buruz informatzeko ez agertzekoa, arbuiatzen da”.

Biltzarreko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 2002ko maiatzaren 24an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Urederra ibaian dauden arrain haztegiei irekitako espedientei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena Urederra ibaian dauden arrain haztegiei irekitako espedientei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Lizarrako Ehiztarien eta Arrantzaleen Elkarteak, Urederra uhaldearen hondoan tonaka lohi dagoe-la ikusita, Zudairiko arrain haztegia kudeatzen duen enpresaren kontra Foruzaingoan aurkeztu duen salaketari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1 eta 2. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren artxiboetan Artatzako arrain haztegiaren kontra irekitako hiru zehapen espediente daude.

1. -42/01 zehapen espediente, arrain haztegiaren titular den Navarra Food, S.A. enpresaren kontrakoa, Urederra uhaldera haztegi-ko lohia joateagatik, hasiera batean uhaldearen ondoko finka batetara bota bazituzten ere, euriak eraman egin zituen uhalderaino. Zehapena, instalazioaren funtzionamendua behar bezalakoa ez izateagatik, 100.000 pezetakoa izan zen (Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari uztailaren 3an emaniko 791/2001 Foru Agindua).

2. 248/01 zehapen espediente, Artatzako arrain haztegiaren titular den Navarra Food, S.A.

enpresaren kontrakoa, izokinenzako pasabidean ohol batzuk paratu eta ur-emarian aldaketak eragiteagatik. Zehapen proposamena: 100.000 peze-ta. Ebazteko dago, espediente, jaso duen enpre-sak aurkeztutako alegazioak baloratzen eta haien inguruko txostena egiten ari delako.

3. -2/2002 zehapen espediente, uhalde-hon-doan gai organikoak isuri eta arrain faunan kalte-ak eragiteagatik.

Karguen plegua jakinarazi zaio enpresari.

3. Hasiera eman zaio 2/2002 delako zehapen espediente horri.

4. Departamentuak Urederra uhaldeaz dituen datuak Zudairin, Artatzan eta Artabian laginak hartzeko dauden puntuetakoak dira.

Puntu horietako bakoitzean bilakaera honakoa izan da, Nafarroako amuarrain kopuruen egoerari buruzko 2001eko txostenaren arabera:

– Urederra-Zudairi (arrain-haztegitik 1.500 metro ibaian gorago dago).

Urederrako heriotzarik gabeko arrantza espa-rruan amuarrain kopurua handia da (5.460 ale hektareako), eta % 66ko igoera izan du aurreko egoerarekin alderaturik. Urte aproposa izan da ugalketarako eta erreklutamendu tasa handia izani-rik (% 69,3koa), arrainkumeen dentsitatea ere handia da (0,3784 kume m<sup>2</sup>-ko), lehen zegoena-ren bikoitza. Arrain ale gazteen galera txikia gerta-tu da (- % 8), baina erdi-goi mailan daude oraindik (10,75 amuarrain 100 m<sup>2</sup>-ko) eta ale helduen kopurua ere igo egin da (% 13), eta haien densi-tateak altua izaten segitzen du (6,0 amuarrain/100 m<sup>2</sup>-ko). Tamainen banaketak erakusten du amua-rrainen adina, batez beste, gaztea dela eta 0+ kla-seak indar handia duela. Gainerako klaseen egitu-ra onartzeko modukoa da. Banaketa maila zabala da eta populazioa bizi luzekoa, tamaina handiko alerik ez badago ere. Urtetik urterako bilakaeran

ikus daiteke populazioa dagoela kontrolaturiko aldiko maila altuenetako batean.

– Urederra-Artatza (arrain-haztegiaren hustubi-deetatik 500 metrora, ibaian behera):

Zudairiko arrantza esparruan amuarrainen dentsitatea handia da (4.400 ale hektareako). Ez da garrantzizko aldaketarik izan aurreko urtetik. Urte ona izan da ugalketarako, eta erreklutamendu tasa normala izanik (% 43,57koa), arrainkumeen dentsitatea —0,1917 kume m<sup>2</sup>-ko— aurrekoa bezalakoa izan da eta muga normalen barrenekoa. Arrain ale gazteen kopurua ere normala da (10,32 amuarrain 100 m<sup>2</sup>-ko). Ugaltzeko garaian dauden helduen dentsitatea oso handia da (14,5 amuarrain 100 m<sup>2</sup>-ko), 2000. urtekoaren bikoitza. Populazio ongi egituratu eta orekaturik dago eta haren banaketa zabala da. Ale zaharren kopurua ere handi samarra da. Urte hauetan populazio mailak onak izan dira, aldaketa handirik gabe.

– Urderra-Artabia (arrain-haztegitik 6.200 metrora, ibaian behera):

Populazioaren dentsitatea ertaina da, 2.320 ale hektarea bakoitzeko. Urteko erreklutamendua

(% 54,61ekoa) aurreko urtekoa baino handiagoa izan da eta aurtengo arrainkumeen dentsitatea aurreko urtekoaren bikoitza, baina batez besteko balioa erdietsi du (0,1267 arrainkume m<sup>2</sup>-ko). Arrain ale gazteen kopurua ohiko balioetatik beherakoa da (4,37 amuarrain 100 m<sup>2</sup>-ko) eta heldue-na, berriz, ia bikoitza dena, dentsitate altukoa da (6,16 amuarrain/100 m<sup>2</sup>-ko). Populazioaren egitura on samarra da, baina agerian du ale gazten eskasia. Azken urteotan populazioaren kopurua erdiko mailetan egon da eta aski egonkor.

5. Departamentuaren eskumenetatik kanpo dago erabakitzea enpresa proiektuak non kokatu, departamentuaren baimena jaso behar baldin badute ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27a

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, administrazio publikoek nekazaritza eta abeltzaintzaren arloetan dituzten laborategiak arautzen dituzten Europako Batasuneko arauiei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak administrazio publikoek nekazaritza eta abeltzaintzaren arloetan dituzten laborategiak arautzen dituzten Europako Batasuneko arauiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du

administrazio publikoek nekazaritza eta abeltzaintzaren arloetan dituzten laborategiak arautzen dituzten Europako Batasuneko arauiei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 185. artikulua 2. idatz-zatiarekin bat, galderak izaera juridikoa du eta ez litzateke bidezkoa erantzutea. Nolanahi ere, Parlamentuko Mahaiak tramitatzea onartu duenez, hauxe da eman behar dudana informazioa:

1. Nekazaritza eta elikadura arloko laborategiak ezagutu, kreditatu eta kontrolatzearen inguruak araubide juridikoa honako hauetan ageri da:

– Kontseiluaren 89/397/CE zuzentaraua, 1989ko ekainaren 24koa, elikagaien kontrol ofizialari buruzkoa.

– Kontseiluaren 93/99/CEE zuzentaraua, 1989ko ekainaren 24koa, elikagaien kontrol ofizialaren inguruko neurri osagarriei buruzkoa.

– Urtarrilaren 15eko 50/1993 Errege Dekretua, elikagaien kontrol ofiziala arautzen duena.

– Abuztuaren 4ko 1397/1995 Errege Dekretua, elikagaien kontrol ofizialerako neurri osagarriak onesten dituena.

– Ekainaren 21eko 239/1999 Foru Dekretua, Nafarroako nekazaritza eta elikaduraren arloko

laborategiak ezagutu, kreditatu eta kontrolatzea arautzen duena.

2. Batasuneko araudiak ez du eraginik ez kide diren estatuen ez eta Europako erregioen antolamenduan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## **Galdera, Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiategien egoerari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiategien egoerari buruz egingandako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiategien egoerari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariaren erantzuna.

1. Lana egitean izandako zailtasunak direla eta, 2001eko urrira arte ez da amaiturik egon, eta abenduan jaso zen behin betikoz. Datu basea 2001eko uztailan gaurkotu zen eta aldizka aztertuko da.

Erantzun honek oroit-idazkia eta datu basearen artxiboak dauzka atxikirik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, soinu-zko irrati hedapenerako emisoreen adjudikazioak jasotako enpresen akzio jabetzan gertatu diren aldaketei buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak soinu-zko irrati hedapenerako emisoreen adjudikazioak jasotako enpresen akzio jabetzan gertatu diren aldaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du soinu-zko irrati hedapenerako emisoreen adjudikazioak jasotako enpresen akzio jabetzan gertatu diren aldaketei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Aldaketarik izan al da frekuentzia modulatu-ko uhin metrikozko irrati emisoreetarako kontzesioaren adjudikazio-hartzaile suertatu ziren enpresen akziodunetan?

1998an behin-behinekoz adjudikaturiko emakidei dagokienez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jakin du, ofizialki, Medios de Comunicación 21, S.L. emakida hartzailearen partaidetzen % 50, Ezequiel Barricart Subiza jaunarena zena, eskualdatu egin dela Natalia Gómez Yanci (% 10), Gabriel Gómez Yanci (% 10) eta Joaquín Gómez Santesteban (% 30) jaun-andre-en alde.

1990. urtean adjudikaturiko emakidei dagokienez, berriz, aldaketa asko gertatu dira enpresa emakida-hartzaileen akziodunetan, baina Nafarroako Foru Administrazioaren aurrean tramitatu den bakarra izan da Radio Blancaren sozietate-kapitalaren bi mila akzio Radio Antena del Sur eta Radio Sur 2000 sozietateei eskualdatu izana.

2. Zein izan dira aldaketak eta nolako tramitazioa bete da kasu bakoitzean?

1998. urtean eginiko emakidei dagokienez, ofizialki jakin dugun aldaketa bakarra aurreko idatzatiaz aipatutakoa izan da. Tramitazioaz esan beharra dago emakida-hartzaileak 2000ko urriaren 30ean eskatu bazuen ere akzioetako aldaketa hori egiteko beharrezkoa den baimena, frekuentzia modulatu-uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenak arautzen dituen azaroaren 10eko 336/1997 Foru Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitakoa, baimen hori ez zaiola eman, foru administrazio honen iritziz ez baitira oraindik aplikatzekoak emakida hartzaileei dagozkien eskubideak eta betebeharrak –horien artean akzioak eskualdatzeko baimena eskatu beharra–, emakida horiek behin betikoz adjudikaturik ez dauden bitartean (hauxe da kasua). Beraz, baimen horiek ematea geroraturik dago emakidaren adjudikazioa behin betikoa izan arte.

1990. urteko emakidei dagokienez, berriz, irrati hedapeneraren arloan Estatuko Administrazioaren eginkizunak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeari buruzko abuztuaren 1eko 1322/1997 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat, akzioetan aldaketak egiteko baimenak tramitatzea Estatuko administrazioari dagokio, enpresa horien jardun eremua Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldeaz gaindikoa delako, emisore nazionalak izaki. Hori dela-eta, baimen horiei buruzko informazioa Nazioko Gobernuari dagokio, Radio Blancaren akzioen eskualdatetari buruzkoa izan ezik, Lehendakaritza kontseilariak apirilaren 6ko 44/1995 Foru Aginduaren bidez baimendua, lehen aipaturiko 1322/1997 Errege Dekretuaren aurretik.

3. Lehiaketa horietako adjudikazioetarako puntuazioan zein izan zen adjudikazioa hartu zuten enpresen eta hurrengo gelditu zirenen arteko aldea?

1990.eko emakidetan, administrazio espedienteetan ez da puntuaziorik ageri.

1998ko emisoreen kasuan, berriz, enpresa adjudikazio-hartzaileen eta hurrengoaren arteko puntuazio-aldeak ondoko tauletan ageri direnak dira:

IRUNA, 8.3 eta 105.4 ESKAITZAK	PUNTUAK, GUZTIRA	Pedro A. Vega Hernández	51,00
Universidad de Navarra	83,00	Radio Popular	51,00
Medios de Comunicación 21	80,70	Información por Ondas	47,00
Iruñeko Komunikabideak	80,00	Radio Blanca	47,00
Pamplona Televisión	72,25	Uniprex	46,00
Luis del Olmo Marote	70,00	Voz Navarra	46,00
Voz Navarra	70,00	Ibérica de Comunicaciones	45,00
Recoletos Compañía Editorial	68,21	Radio Canal Navarra	37,00
Medipress	67,00	Ambiente Musical	26,00
Canal Mundo Radio Navarra	65,49		
Publicidad 3	64,80	<b>LIZARRA, 93.5</b>	<b>PUNTUAK,</b>
Cadena Voz	61,00	<b>ESKAITZAK</b>	<b>GUZTIRA</b>
Prensa Española de Radio por Ondas	60,00	Luis del Olmo Marote	70,70
Sociedad Española de Radiodifusión	55,50	Medipress	67,00
Grupo Editorial Tele 5	55,00	Recoletos Compañía Editorial	66,21
Grupo Zeta	54,00	Alberto Araiz Vidaurre	66,14
Unión Ibérica de Radio	53,00	Canal Mundo Radio Navarra	62,49
Pedro A. Vega Hernández	52,25	Cadena Voz	58,00
Radio Blanca	51,00	Unión Ibérica de Radio	55,00
Radio Popular	51,00	Medios de Comunicación 21	52,70
Ibérica de Comunicaciones	48,00	Pedro A. Vega Hernández	51,64
Uniprex	48,00	Radio Popular	51,00
Información por Ondas	47,00	Radio Blanca	48,00
Radio Canal Navarra	45,00	Uniprex	46,00
Ambiente Musical	34,00	Información por Ondas	45,00
		Radio Canal Navarra	40,00
		Ambiente Musical	25,00
<b>TUTERA, FM-KO EMISOREA, 95.9</b>	<b>PUNTUAK,</b>	<b>LESACA 100.9</b>	<b>PUNTUAK,</b>
<b>ESKAITZAK</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>ESKAITZAK</b>	<b>GUZTIRA</b>
Ribera Navarra	75,00	Xorrosin Irratia	77,00
Recoletos Compañía Editorial	70,00	Canal Mundo Radio	60,82
Luis del Olmo Marote	68,00	Radio Blanca	57,00
Medipress	66,00	Pedro A. Vega	55,26
Publicidad 3	65,00	Juan A. Lecuona Narvarte	51,00
Jiménez Arcos-López Carcavilla	64,00		
Cadena Voz	60,00	Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-	
Canal Mundo Radio Navarra	60,00	ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-	
Prensa Española de Radio por Ondas	60,00	goetan xedatutakoa betetzeko.	
Grupo Zeta	56,00	Iruñean, 2002ko otsailaren 17an	
Unión Ibérica de Radio	54,00	Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:	
Medios de Comunicación 21	52,00	José Ignacio Palacios Zuasti	

## Galdera, Lizarrako saihebidia bikoizteko aukera eta kostuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak Lizarrako saihebidia bikoizteko aukera eta kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak galdera egin du Lizarrako saihebidia bikoizteko aukera eta kostuari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Zein izanen litzateke, gutxi gorabehera, Lizarrako saihebidia bikoizteko kostua, eta Iruña-Logroño autobieren kostu osoaren zer ehu-neko?

Nafarroako Gobernuak I. fasea —Zizur Nagusiko autobia-Lizarrako saihebidiearen hasiera (Villatuertako lotunea)— eraikitzeke proiektuak eta II. fasearen trazaduraren proiektua —Lizarrako saihebidiearen amaiera (Aiegi/Iguzkitza lotunea)-Ebroren ardatza/NA-134— gauzatu ditu; beraz, Lizarrako saihebidia bikoizteko agiri teknikoa, ekonomikoa eta administratiboa ez da xedea izan.

2. Autobia kudeatzeko enpresa pribatuari eginen zaion administrazio emakidan sartuko al da Lizarrako saihebidia?

Emakidarako lehiaketak Lizarrako saihebidia ere sartzeko dauka aurreikusirik.

3. Lizarrako saihebidia Europako funtsekin ordaindu izana traba al da administrazio emakidaren bitartez kudeatu ahal izateko?

Lizarrako saihebidiearen finantziazioan ez da izan Europako funtsik.

4. Ingurumenaren arloko Europako arauetan saihebidia bikoiztea galarazten duten mugak daude?

Ez.

5. Bikoizketa baztertzea eragin dezakeen muga orografikorik badago?

Ez.

6. Nafarroako Gobernuak komenigarritzat jotzen al du bikoizketa? Hala bada, zergatik ez du egiten autobieren proiektuarekin batera?

Behin eta berriz esan dugu Nafarroako Gobernuak Lizarrako saihebidia hemendik gutxira bikoiztea aurreikusi duela.

Kontseilari honek, erantzuna izenpetzen duen honek, otsailaren 12an adierazi nuen, espreski eta zalantzarik gabe, Lizarrako saihebidia bikoiztu eta autobia bihurtuko dela epe motzera. Orduan esan nuenez, Nafarroako Gobernuak ez du inoiz ere pentsatu obra hori betiko uztea egun duen tipologiarekin eta beraz, epe motzean autobia ezaugarriak izanen ditu eta Iruña-Logroño ardatzean sartuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzorde Nagusian izanen dituen bi ordezkariak izendatzea**

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2002ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen:

**1.** Hezkuntza eta Kultura Batzordeko ordezkari hauek Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kideak izendatzea:

– Pedro Eza Goyeneche jauna

– Carlos Cristóbal García jauna

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
<b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b>
Urte bat ..... 39,07 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »	Arrieta 12, 3
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	31002 IRUÑA